

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Isidro Igoaran Elustondo

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1934-2022)*

Aurkibidea



Biografia



Lategi auzoko Egurrola baserrian jaio zen, gaur egun Eula sagardotegia duten etxean. Sei senide ziren eta hurbiltasunagatik Hernaniko Arriatsuko eskolara egin zuten lehen urteetan. Berak 8-9 urte zituela, ordea, Andoaingo La Salle ikastetxean sartu zuten. Gogoan du urte inguru horretan sagar urte ikaragarria izan zela. Hamaika urterekin eskola utzi egin zuen, etxean lan asko izaki. Sagardoa betidanik egin dute eta orain ere lan asko egiten dute horretan. Urnietako zinegotzi ere izan zen lau urtez.

Zintak

URN-022

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-02-04
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Soldadutza Frantzian egin izanaren ondorioak

- **Erref:** URN-022/002
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:00:52. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Igoaran abizena Frantziatik datorkio. Familiaren jatorriaz hitz egiten du. Aitak soldadutza Frantzian egin zuen, eta II. Mundu Gerrara joateko deitu zioten, baina ez zen joan. Ordutik desertore geratu zen eta ez zen atrebitzen Frantziarako muga pasatzen.

2. Simaurra Albizturtik Urnietara eramaten

- **Erref:** URN-022/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Aita Alkizatik etorri zen Urnietara. Behin Urnietako Egurrola baserrira Albizturtik simaurra eta harrizko askak ekarri zituztenekoa kontatzen du. Lehen balio handia zuen simaurrak.

3. Garotara joaten zireneko ohiturak

- **Erref:** URN-022/008
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garotara asko joaten ziren, ganaduarentzako azpiak egiteko. Garotara nora eta nondik barrena joaten ziren azaltzen du. Bi lagun joaten ziren gutxienez, goizeko ordu bietan etxetik irtenda.

Transkripzioa

-Gero garotaa, osea, ganauentzako azpiya itteko. Mendia asko juten giñen. Eta gue osak eta hoik, ni gutxi ibilli nitzan baiño, ba al dakizu hemen Urneietan Xoxoka baakizu, Xoxokatik barrena jun irikin hor mendiz, hor mendiz Adarra mendin azpikaldetik jun; Etzubi, Etzubitik barrena, Etzubin zeon iñostorra, Onddi edo hor haruzkaldetik, e, ya Arano-eta bista-bistan dala, Etzubin kargatu ta zeera, Ugaldetxora ateatzen zien irikin. Atea ze zirkuito egiten zuen, e. Ugaldetxo frontoiyea. Hor badia erreka hartan Olazar eta; Olazar baiño aurrexeao han goitik behera narra ta arrastan. Gurdiya bestela irauli itten zan eta Narra eusten ziyola. Hua bota behera ... gaiñea ta geo kamiyo Portu(r)a Hernania. Ta gero ostera hortik behetik gora. Horrea atea beste iri pare bat Hernania ta. Garua bakizu ze jornada etortzen zien. Orduan jende asko ibiltzen zan hor kamiyo hortan. Hor jorna jornaan gaiñian etortzen zan, Hernaniko ta urnietako ta.

-Egun batian jornada bat nahikua izango zan ba.

-Bai, honbre. Ta goizeko hirutan, ordu bitan eta ateatzen zien, e. Goizeko ordu bitan-eta.

-Josu, garai hortan atera.

... bakarrik aitzeko lanak ez diela hoik izango.

-Ez. Bi laun gutxieneke bihar zien, ba botatzeko ta bestiak kargatu ta bi laun, bai. Ordun garo asko ekartzen zan eta.

4. Garoak ebakitzeko etxafuegoaren zain

- **Erref:** URN-022/009
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:13:16. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Garoak ebakitzera noiz joaten ziren azaltzen du. Mendi-guardak etxafuegoa bota arte ezin izaten zen hasi igitaiarekin lanean. Sailen mugengatik batzuetan ika-mikak egoten ziren.

5. Goizean goiz jaiki lanerako prest

- **Erref:** URN-022/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:17:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Goizeko 6etan jaikitzen zen baserritarra lehen. Garotara joan behar zutenean, goizeko ordu bietan jaikitzen ziren gurdia prestatzeko.

6. Gerrako kontu tristeak

- **Erref:** URN-022/013
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:20:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra izan zenean, 2-3 urte zituen Isidrok. Gerran Santa Barbaratik egindako erasoan baserriko pareta bota zieten; inguruko baserri batean neska bat hil zen eta beste batek begia galdu zuen. Frontea non egon zen azaltzen du. Behin aitak eskapada egin zuen, soldaduen ondotik pasa zenean.

7. Gerrako hildakoak eta salatariak

- **Erref:** URN-022/014
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:20:37. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Isidroren osaba bat fusilatu egin zuten Andoaingo eliza atzean. Urnietan gizon ugari hil zituzten horrela. Salatari asko egon zen Urnietan. Nafarroako zenbait herritan emakumeak bakarrik gelditu omen ziren bizirik gerra bukatutakoan.

8. Mutil gazteak gerran beldurtuta

- **Erref:** URN-022/015
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:25:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Gerra Zibila gogorra izan zen: osaba bat fusilatu egin zuten; beste bat 17 urterekin soldadu eraman zuten eta Zornotza inguruko borrokan aritu zen. Osaba hark ikusitakoak eta bizitakoak kontatzen ditu.</p>

9. Gose garaian, errotak itxita eta errazionamendua

- **Erref:** URN-022/016
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:25:26. **Bukatu:** 00:28:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean gosea etorri zen eta errotak itxita egon ziren. Osaba bat Aranora joaten zen errotara gauez; abereek erraz ikasi zuten bidea. Errotan gertatutako anekdota kontatzen du. Itsasondoko errotara ere joaten ziren trenez. Errazionamendua izaten zen garai hartan, eta baserriko jeneroa entregatu egin behar izaten zen.

10. 1.000 kilo irin bakar-bakarrik antolatu behar

- **Erref:** URN-022/017
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:28:17. **Bukatu:** 00:29:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Irina estraperloan ekartzen zuten. Behin osabak 1.000 kilo irin hartu behar zituen, eta Guardia Zibilak harrapatuko zituen beldurrez, berak bakarrik antolatu behar izan zituen irin zaku guztiak. Etxean tranpa bat eraiki zuen osabak, inork ez zezan irina gordeta zeukatenik.

11. Kalean gosea eta baserrira eskean

- **Erref:** URN-022/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:29:45. **Bukatu:** 00:31:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Artoarekin egindako ogia jaten zuten gerra ostean. Kaleko jendeak gorriak ikusi zituen janariarekin. Baserrian hobeto moldatu ziren baserriko jeneroarekin. Jende asko eskean etortzen zen baserrietara.</p>

12. Andoaingo La Sallen ikasitakoa

- **Erref:** URN-022/020
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:33:23. **Bukatu:** 00:36:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

11 urte zituela utzi zuen eskola. Andoaingo La Sallen ikasi zuen: goizean trenez joaten ziren hara, eta bazkaria etxetik eramaten zuten. Lehen ez zitzaion garrantzirik ematen hezkuntzari, etxean nahiko lan egoten baitzen.

13. Pitarrak, zizarrak eta upelak

- **Erref:** URN-022/022
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:39:18. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Muñoz lortutakoan, hurrengo pausoa zein den azaltzen du. Pitarra eta zizarra zer diren aipatzen du. Lehengo upelak oraingoak baino txikiagoak ziren. Upelaren egurraren garrantziaz hitz egiten du. Upelgileak baziren lehen.

14. Sagarrondoak aldatzearen garrantzia

- **Erref:** URN-022/026
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:46:24. **Bukatu:** 00:48:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Lehen sagarrondoak aldatzeagatik duro bat ematen zuten. Bere arbasoek sagastia nola hedatu zuten azaltzen du. Mihurari buruz hitz egiten du.

15. Sagar moten zerrenda

- **Erref:** URN-022/027
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:48:42. **Bukatu:** 00:50:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Sagar motei buruz hitz egiten du eta mota bakoitzeko izenak esaten ditu. Gaur egun sagar mota asko dago. Lehen nahiko sagar egoten zen hemen, baina gerora kanpotik ekartzen hasi ziren.

Transkripzioa

-Eta sagar klasiak? Esango al zenizkidake batzuk? Badakit gezak badiala, gazik'e badiala...

-Bai, mordua. Gazik esango dittuu batzuk?

-Bai.

-Piristiña, urtebi haundiya, urtebi ttikiya, goikoetxia, berde agria... Holakotan askotan ez dia goatzen baiño. Urtegik esan dittut; mainttoni ta kapandoja, ta geo boskantoi, aizpitti saarra... Besteikan hola. Badia oandikan beste pare bat. Sagar txuriya edo; santiyo saarra... Klase asko daude hola. Gezak berriz, gezamiña ta mozolua ta, pastolua ta, merkeliña ta, potrokillo sagarra ta, urdanitturri ta. Geo sagar beltza esaten zaiona're bai ta; txori-saarra ta; huartia ta. Bai, hola mordoxka.

-Nik reineta eta errezil sagarra...

-A, hoi gaziya da. Hori ez dizut esan. Bestea mendiyola, gazia.

-Asko daude, ezta? Lehen hainbeste ba al ziran?

-Lehen saasti asko zan basarritan hotan. Bueno. Asko-asko! Lehen ez zan kanpotik sagarrik erosten sagardoa itteko. Sagardozaliak'e dana bertakua. Geo hasi zan, hemen gutxitzen hasi zanian Galizitik ekartzen. Galizitik eta Asturiastik eta Frantzitik, danetatik. Aurten'e Galizitik eta Frantzitik ekarri deu.

16. Sagar-bilketa

- **Erref:** URN-022/028
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:50:42. **Bukatu:** 00:52:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Kargak zer ziren azaltzen du. Sagarrak nola bildu izan dituzten aipatzen du.

17. Neska-laguntza eta mutilen arteko ika-mikak

- **Erref:** URN-022/030

- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:54:14. **Bukatu:** 00:55:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neska-laguntzeak izaten ziren lehen. Mutilak harrika ibiltzen ziren batzuetan. Dantza lotua debekatuta zegoen lehen herri ugaritan.

18. Aisialdirako denbora gutxi, baina hura sakratua

- **Erref:** URN-022/031
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:55:25. **Bukatu:** 00:56:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lehen ez zegoen gaur egun bezalako oporrik. Larunbatak lehen lanegunak ziren. Igande arratsaldetan libre egoten ziren. Igandetan lan egitea ez zen libre eta apaizari eskatu behar izaten zitzaion baimena lana egin nahi izanez gero.

19. Soldadutzako bizimodua eta jendea

- **Erref:** URN-022/034
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:58:16. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

<p>22 urterekin joan zen soldadutzara eta ordurako nola-hala moldatzen zen gaztelaniaz. Soldadutzako eguneroko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Orduan nabari zen baserritarren eta kalekoen arteko aldea.</p>

20. Lehengo eta oraingo txoriak

- **Erref:** URN-022/036
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:59:52. **Bukatu:** 01:00:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Lehen kaio gutxiago zegoen orain baino. Aldaketa horren arrazoiak aipatzen ditu.

21. Konjuruak eta bedeinkazioak

- **Erref:** URN-022/041
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:08:41. **Bukatu:** 01:11:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna

Laburpena:

<p>Etxea babesteko elorri eta erramu bedeinkatua jartzeko ohitura zegoen, San Juanetan lizarra... Kandelario Eguneako ohitura aipatzen du. Apaizek lehen konjurua egiten zuten harria egin ez zezan eta soroak bedeinkatzeko.</p>

22. Apaizari eta Guardia Zibilari tratatu desberdina baita zakurrek ere

- **Erref:** URN-022/042
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:11:39. **Bukatu:** 01:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Apaiza edo Guardia Zibilak etortzen zirenean etxera, zakurrak zaunka desberdina egiten zuen. Bidean apaiza topatuz gero, txapela kendu eta berorika egiten zitzaien.</p>

Transkripzioa

- Anekdotak polit bat badet. Zakur bat hemen hor atereran, oain hor mandio-zubia do, eta hor zan uran deposittuba eta haren gaiñian txabola eta, zakur haundi bat-eta. Gu soruan lanean ari giñala, ezautzen, bagenekigun etxea zein etorri zan, apaiza edo Guardi Zibilla, bitako bat. Apaizei ta Guardi Zibilei zaunka diferente iten zien. Ta, aiba, badek ba apaiza edo Guardi Zibilla bitako bat, esaten gendun. Apaiza izaten zan askotan baiño Guardi Zibillei're bai, e. Sotanagatikan edo. Zaunka diferentia.

-Zer zen zaunkahola errespetuzkua?

Bai, bildur-zaunka, bai.

-Bai, e?

-Bueno! Puerte, e. Bai.

-Esaten da apaizarekin gurutzatu ezker bidian edo...

-A! Txapela kendu ta. "Beorri" hitz ein da.

-Eta gurasoei ere beorrika?

-Aita eta amari ere beorrika hitz egiten zenien?

-Ez, guk ez, baiño toki askotan, e. Lehen-lehen nik uste det dana ta.

Geo're nik ezautu det hemen auzuan'e, hoik beorrika aitzen zien baiño gu ez. Gu ez gea behiñ'e aittu hola beorri, ez. Ez gea aittu.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com